



BIO-EUSKARRIEN INBASIOA


Zer da bio-euskarri bat ?

Euskal eta Landesetako kostetan 2007. urtetik aurrera ikus daitezken arren, denbora asko itxaron behar izan da plastikozko zirrindola hauen misterioa argitu ahal izateko. Azkenean, Surfrider Foundation Europe-eko Korsikako tokiko ordezkariak identifikatu ondoren, gaur egun jakin badakigu "bio-euskarri" batzu direla, ur-araztegiatan erabiltzen direnak ur erabilien tratamendurako, nekazaritzako elikagaien industrian (ardo eta edariak, latak, haragia...), arrain hazkuntzan eta hainbat kruzero-barkutan.

Nola funtzionatzen dute ?

Araztegi batean, ur erabiliak tratamendu fase ezberdinetatik pasatzen dira : Aurre-tratamendu fasea (solido handien hasierako banaketa fisikoa sare berezi baten bidez), hondar-kentzea (oso dentsuak diren solido txikien banaketa, adibidez hondarra). Azken fasean, disolbatutako materia biologikoa masa biologiko solido bilakatzen da bakterio egokiak erabiliz. 2000. urtearen hasieran, Norbegiako Unibertsitate bateko hainbat ikertzaile, euskarri bat uretan sartu ezker, bakterioak gainean finkatzen direla eta askoz eraginkorragoak bilakatzen direla konturatu ziren.

Iragazki hauek bakterientzat euskarriak dira, kantitate handian murgilduak direnean (uraren bolumenaren %50, hau da ehunka mila edota, milioika) araztegiatara ontzietan. Uraren jarioa edota airearen introdukzioa dela medio, molde desordenatu batean mugitzen dira eta bakterien eraginkortasuna emendatzen da.



Nola iristen dira hondartzara?

Gaur egun dakigunaren arabera, bi kutsadura iturri badaude :

1. Unean uneko istripuak

Azken hilabete hauetan gutxienez hiru istripu izan dira : 2009-ko udazkeneko denboraldian, Gipuzkoan (Euskal

Herria), miloika pieza eskapatu ziren Oria ibaian kokatutako papelerara bat edo bitatik. Bio-euskarriak Ozeano-ra iristen dira Orio-n. Bertako hainbat surflarik eta uraren kudeatzailek euskarri hauek begiztatu zituzten. Komunikabideek artikulu ugari argitaratu zituzten eta Donostiako alkatea kutsadura hartaz kexatu zen publikoki. Susmo azkarrak izan arren, enpresa errudunak ez dira publikoki identifikatuak izan.

2010-eko Otsailak 11-an, Corbeil-Essones herrian (Frantzia), 500 eta 800 m³ bitarteko (hau da milioika) bio-euskarri eskapatu ziren araztegi batetik eta Sena ibaira iritsi ziren. Azkar, gabarra batean bizi diren hainbat jendeak begiztatu zituzten eta Paris-eko Ibaiaren Poliziari hots egin zieten. Kutsadura eragin zuenak gertatutakoaren erruduntzat onartu zuen bere burua. Robin des Bois elkarteak pertsona anonimo baten kontrako salaketa aurkeztu zuen ureko baliabideen kutsadura gaitzat hartuz. Martxoak 7, bio-euskarriak ikusgai izan dira Rouen eskualdea baino pixka bat beherago "Boucles" Eskualdeko Parke Naturalean, Normandiako Senan istripuak 310 km-ra. Apirilak 25, igandez, Honfleur-eko (Frantzia) hondartzan bio-euskarriak agertu ziren. Pariseko bio-euskarriak Ozeanoraino iritsi ziren!

2010-eko Otsailaren erdialdean, Galizian, angila arrantzaleek beren sareetan kantitate handitan bio-euskarriak bildu zituzten Miño errekan Espainia eta Portugal arteko mugan. Kutsadurak egun batzua iraun zuen. Bertako poliziak gaia aztertu zuen, baina jatorriak ez zuen bilatu.

2. Ohiko isuriak

Hainbat hipotesi aipa ditzakegu:

- Bio-euskarriak erabiltzen dira irekiak diren ontzi handietan, eta euri azkarrak izaten direnean gainezkatzen dira.
- Ekoizle batzuk diote "bio-euskarriak gehitzearekin nahikoa dela" beste aldatarik gabe araztegi batean eraginkorrak izan daitezken. Hori dela eta, gaizki egokituak diren araztegiak ba al dago? Zursare sistema bat sare handiegia ditzuena adibidez. Hala ere, hipotesiak baizik ez dira, baina argi dago hiru istripu horiek berek ez dutela esplikatzen azken 3 urte hauetan Frantzia eta Espainiako kosta Atlantikoko hondartzetara iritsi den bio-euskarrien sekulako kantitatea. Beste iturri batzua aztertu behar da.